

Osoko zuzenketaren defentsa

Eusko Jaurlaritzak legebiltzar honi aurkeztu dizkion 2010eko aurrekontuen lege proiektuaren gaineko eztabaidari ekingo diogu gaur. Ez zaizkigu onargarriak iruditzen ez bertan jasotzen diren herri-proiektua ez eta lehenengo aurrekontu honetan gobernuak erabili dituen formak. Hori dela eta, gobernuari bueltatzea eskatzen duen osoko zuzenketa aurkeztu dugu. Gaur inoiz baino arrazoi gehiago ditugu aurrekontuak itzulera eskatzeko, zuhurtzia guztiaz badiogu ere. Izan ere, gaur, inoiz baino arrazoi gehiago ditugu aurrekontu hau bueltatzea eskatzeko:

proiektu honek definitzen du zaretena, zer zareten, ze kudeaketa egin nahi duzuen, zer nahi duzuen herri honentzat, gure ikuspegitik herri honen gehiengoak nahi duenaren kontrakoa; eta definitzen du, baita ere, nola zaudeten gobernuan, nola sentitzen zareten gobernuan, nola bizi duzuen gobernuan egotea eta herri honekiko duzuen ardura: harrokeria dario zuen jokabideari. Inoren beharrik ez duzuela sentitzen duenaren harrokeria. Gaur da eguna, osoko zuzenketak eztabaidatzera goazen honetan, gobernu honek ez duela saiakera bat ere egin legebiltzarreko alde honetako taldeekin hitz egiteko, ez behintzat gure taldearekin. Baina besteekiko duzuen harrokeriaren tamainakoa da PPrekiko duzuen menpekotasuna. Badaezpada, hobe hala hola hitzartu ditugun zenbakiak mugitzen ez hasi. Harrokeriaz baina aldi berean menpekotasunez eta justu-justuan, gainontzekoekin elkarrizketa izatetik ihesian, ailegatu ezinik dabilen gobernu da zuena eta horrela adierazten duzue zuen jokabideekin. Beste adibide bat esaten duzuenaren eta egiten duzuenaren arteko distantzia agerikoa egiten duena: guztiontzat gobernu egin behar zuenak, nola egin dezake urteko lege-proiekturik garrantzitsuenean oposizioarekin ez hitz egiteko hautua? Nola da bateragarri?

Zailtasun eta zalantza gainezka dagoen gobernu izanda, zurrak duzuen bakar horri eutsi eta begiak ixtea erabaki duzue, beste inori ez begiratzea. PPren botoak lotu, ziurtatu, eta gainontzeko guztia, erdizka bada ere ateratzen saiatu. Botoen bermea izanda, programarik traketsena ere atera egingo baita eta aurrera eginez, “behar adina egiten ez zaretela ari” salaketa ezkututzen errazagoa da. Kudeaketa ekonomikoaren gainean kritikak orotarikoak baitira, ez bakarrik oposizioko gainontzeko taldeenak. PP berak hainbatetan kritikatu du zuen gobernuaren inakzioa. Aurrekontuak onartzean ere Basagoiti jaunak argi utzi zuen ez zirela euren aurrekontuak, baina... argi utzi zuen aurrekontuen gaineko akordio batetik harago, estatu arrazoiak eta epe ertain luzera hitzartu duzuen strategiaren ondorio dela akordio hau. Eta horrela aztertu behar dira aurrekontu hauek. Atzo bertan Jauregi zuen alderdikideak ere esaten zuen, “herri proiektua duela erakutsi behar du gobernuak”, gai zaretela erakutsi beharra etxekeok ere sentitzen dute beraz. Erakutsi duzuen bakarra -zuen kideek ere horrela ikusten dute- eremu sinbolikoan atzera pausoak egiteko PP bera baino lotsa gutxiago duzuela baita, ez besterik.

Edukietara sartuz, arrazoiak ugariak dira, hain justu nora eza hori agerikoa egiten baita.

Batetik, Aurrekontu-arrazoiak eta arrazoi ekonomikoak daude.

10.315.210.000 euroko aurrekontuan, 1.914.350.000 euroko zorra aurreikusten da eta, gainera, muga hori automatikoki berrius daiteke Lege proiektuaren 14. artikuluko 1. puntuak jasotzen duenaren arabera. Nahiz eta oposizioaren kritiken ondoren hutsegiteaz ohartu eta orain izaera mugagabe hori kentzekotan zareten, zuen autozuzenketa konpartituan jasotzen den bezala. Horrez gain, izugarri hazten dira konpromiso kredituak: aurreko urtearekin erkatuz, %20 gehiago. Horrek hurrengo urteak gehiegi lotzea suposatzen du. Baina hori baino larriagoa dena da aurrekontu hauetan jasotzen den zorpetzea legearen aurkakoa dela. Kapitalaren formazio gordina 1.299 milioi euro diren arren, zorra 1.914 milioi eurokoa da eta, beraz, zorra gastu arrunta ordaintzeko erabiltzen da. Ez gaude inondik inora ados eta, gainera, legez kanpoko jokabidea da. Estatutuaren 45.1 artikulua argi adierazten du zorpetzea inbertsioetarako bakarrik erabili daitekeela. Autonomia Erkidegoetako Finantziarioetarako lege organikoak dio bere 14. artikuluko bigarren puntuan zorpetu ahalko direla urte betetik gorako kreditua hartuz, beti ere kredituaren kopuru osoa inbertsio gastuetara bideratzen bada. Eta 8/1996 legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantza legeak, dio bere 25. artikuluan urte betetik gorako zorpetze operazioen kopuru osoa inbertsio gastuetara bideratuko dela. Beraz, argi dago aurrekontu honetan gastu arruntera zuzentzen den 600 milioi eurotik gorako kopurua ez dela legekoa, legearen aurkakoa dela.

Eta horrela dela zuek ere badakizue eta, besteak beste, hortik ulertu behar da kongresuko ekonomia eta ogasun batzordean onartu berri den autonomien finantziario sistema arautzeko legean jasotzen den berrikuntzetako bat, PSOEn zuzenketa bat, zeinaren arabera "modu ez ohikoan" 2009 eta 2010era, autonomia erkidegoek bideratu ahal izango dute euren zorra gastu arruntak estaltzeko. Hala ere, zor hau urte betteren epean amortizatzeko beharra ezartzen du zuzenketa honek. Eta gainera, ez da batere ziurra kongresuan biharko tramitea pasako ote duen zuzenketa honek, kontuan izanda zuzenketa hau berriro bozkatu beharko dela LOFCAn aldaketak bozkatzeko direnean eta lege organikoa izanik gehiengo absolutua behar dela aurrera ateratzeko. Saiakera behintzat argia da: legeak ez duenez onartzen guk nahi ditugun aurrekontuak egitea, aldatu dezagun legea. Ad hoc legeak berriro ere, txapuzak estaltzeko. Baina gaur gaurkoz, aldaketa hori egin gabe dago eta beraz, aurrekontu hau legez kanpoko da.

Baten batek esan dezake: baina ezin duzue zorpetze honen aurka egin, ez baituzue zorra kentzeko proposamenik egin. Bat, zorraren muga ezartzeko zuzenketa egin dugu, zuek autozuzenketarekin egin duzuen bezala; eta bestetik, gure zuzenketa diogun bezala, honek zerikusizuzena du zerga politikarekin. Ez dugu aurrekontua murrizteko zuzenketarik egin, kontua ez delako gure ustez aurrekontua are gehiago argaltzea, baizik eta diru-sarrerak igotzea. Eta ez iezaguzue esan zerga politika ez dela hemen eztabaidatzen, bata bestearekin lotua dagoelako, eta horren adibide, Gobernuak berak ere

zerga politikari buruz aurrekontuen memorian kapitulu oso bat jasotzen duela da.

Eta horrela da. Egoera honek zerikusi zuzena du zerga politikarekin, eta zehatzago esanda Zerga Koordinazioko Organoan fiskalitateari buruz hartu diren azken erabakiekin. PSE-EE eta EAJren artean hitzartutako egonkortasun hitzarmenean jasotako aldaketa fiskalak erabat ez-nahikoak dira egungo krisi egoerari erantzuteko eta azken urteotan fiskalitatean egindako atzerapausoen ondorioz eta, krisiaren ondorioz, gutxitu diren diru-sarrerak gehitzeko. 400 euroko kenkaria zati batean kentzea eta aurrezki-errenten zerga-tasa igotzea ez dira neurri nahikoak. Politika fiskalean urrats ausartagoak ematea adostu beharra zegoen, errenta altuenak gehiago zergapetuz, aurrean ditugun erronka sozial eta ekonomikoei nahikotasunez erantzuteko.

Eta hemen salaketa egin nahi dut: gobernu honek egun batean bat eta hurrengoan bestea esaten jardun du fiskalitatearen gainean. Ekonomia eta Ogasun sailburuak berak gauza bat eta kontrakoa esaten jardun du zergen gainean: orain errenta altuenen IRPFa igo egin behar zela, orain ez dela igo behar; zerga- ez zuenak ez, azkenean bai... erabateko nora eza erakutsi du. Azkenean EAJk egiten zion proposamena bere osotasunean ontzat emateko, eta Zapaterok IVArekin gainean hartu duen erabakia bere horretan onartzeko. Nora eza, eta azkenean besteak erabakitakoarekin gustura, horrela proposamenik egin behar izan ez duzuelako azkenean. Erabaki dezatela besteek, nik ez dakit zer esan eta...

Sarrerren jaitsiera nabarmena ikusita ere ez da egin nahi izan, ez zarete ausartu sikiera beste politika fiskal bat proposatzera. Eta nahiago izan da zorpetzera jo. Baina zorpetze maila altua izan arren, horrek berak bakarrik ez du ahalbidetu aurrekontuen pisua lehenean gelditzea ere. Zor eta guzti, Eusko Jaurlaritzaren pisu erlatiboa jaitsi egin da EAEko ekonomiari dagokionean, (%15,2tik 14,9% pasatu da). Eta beraz, esan beharrik ez dago krisiak gehien jo dituen sektoreei behar adinako erantzuna emateko erabat motzak diren diru-sarreraren aurrean gaudela eta gastu sozialean Europako azken postuetan izaten jarraitzen dugula.

Honekin batera, gastu ez-emankorra gutxitzeko hartutako konpromisoa bete. Aurrekontu zurruna egiteko asmoa iragarri arren, lehenengo kapituluko gastuak ez dira jaitsi, igo baizik 3,7%. Aurrekontua txikiagoa den arren, lehenengo kapitulua igo egin da, besteak beste, horrek agerian uzten du ez dela bete goi karguak %10ean jaisteko hartutako konpromisoa. Bete ez den beste konpromiso bat.

Eta alorrez alorreko azterketan sartu aurretik, nola ez salatu nahi dugu lege-proiektu honen atzean **bi eztabaida batera egitea** nahi izan dela: bata aurrekontuena, bigarrena enplegu politikak aurrera eramateko erakundearen arautzearena. Ez gaude eztabaida baten aurrean, biren aurrean baizik. Hainbatetan kritikatu izan dugu guztiok aurrekontu legeak ez direla gai sektorialak urgentziaz arautzeko tokiak.

Baina zuek gaur hemen aurrekontuen proiektuaren azpian, beste sakoneko gai bat arautu nahi duzue, ahalik eta eztabaida gutxienekin, ahalik eta zarata gutxienekin. Agian, LANBIDE xedapen gehigarri gisa gehitu zenuten momentuan apaingarri bat jarri nahi izan zenioten berez ditzira gutxi zuen aurrekontu bati, legez-kanpoko zorpetzea ezkutatzeko apaingarria. Oraindik ere eskuan izan gabe, aspaldian ari baitzineten gobernu honen lorpenik handiena bezala saltzen enplegu politiken transferentzia. Zuhurtziak eskatzen baldin badu ere, eskuan izan aurretik ezer ezin dela saldu, zuek “lanean ari zaretela” eta “gauzak lortzen ari zaretela” erakutsi beharra zenuten, sozio-preferentea berak ere alor ekonomikoan inakzioa kritikatu ondoren. Beraz, badirudi hortik ulertu behar ditugula presak. Euskal gizarteari adierazi nahi zenioten urtarrik 1ean izango genituela enplegurako politika aktiboak eta beraz, lehenbailehen beharrezkoa zela baliabidea arautua izatea. Horraino salgarria eta guzti izan daiteke.

Baina orain? Aitzakia/beharrak ez duzuenen? Zergatik mantentzen Lanbideren arautzea jada baldin badakigu guztiok “arazo teknikoak” eta “politikoak” medio ez ditugula eskumen horiek izango urtarrikaren 1ean?

Gai honetan ere zuen hitza jan duzue. Beste behin ere erakutsi duzue hartutako konpromisoak ez dituzuela betetzen. Eta gai honetan are lotsagarriagoa dena, hitza bete ez eta horren ardura hartu beharrean erruak kanpoan bilatzen hasi zarete. Benetan, zuen jokabidea gai honetan edozeini koloreak gorritzeko modukoa dela uste dugu.

Baina hor jarraitzen du LANBIDEk, adostu dituzuen zuzenketetan ere ez duzue kentzekorik esaten, nahiz eta PPko bozeramaileak publikoki esan zuen ez lukeela legean egon behar. Eta beraz, honi buruzko eztabaida ere orain eta hemen izan behar.

Batetik ez gaude ados presa horrekin. Are gehiago, oraindik ere ez dakigunean, ez gizarteak, ez legebiltzarkideok, eskumen horrek ze egiteko hartuko duen bere baitan eta argi dagoenean gainera emandako epeak ez direla beteko. Ezin da politika aktiboak aurrera eramango dituen erakundea arautu eskumen hori zertan geratuko den argi izan aurretik. (Aholku Batzorde Juridikoaren azterketan zehar, agerian uzten da azkarregi egindako xehetasunak jasotzen direla, aurrez eskualdatzea nolako izan den jakin gabe).

Eta bestetik ez dugu bat egiten, ez du inolako justifikaziorik LANBIDE zuzenbide pribatuko entitate gisa sortzea, Ekonomia Kontrolerako Bulegoaren txostenak berak ere ikuspegi kritikoa azaldu du formula hau erabili izanaz eta kritika are gogorragoa egin du gehiengo sindikalak ere, haien artean, ELA eta LABez gain, mahai sozialean parte hartzen duen CCOOk. Agerian dago, beraz, ez dela ezta partzialki ere sindikatuekin adostu.

Badirudi, formulazio horren aldeko hautua egin duela Gobernuak, Erakunde Autonomo gisa antolatzeak izan ditzakeen hainbat kontrol alde batera uzteko; alegia, kontabilitatea, aurrekontu publikoa, edo eta interbentorearen aurretiko kontrola, hots, Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauekiko Legeak jasotzen dituenak. Baina hori bezain larria dena da Erakunde Autonomo izateak dituen abantaileri uko egingo litzaioke modu horretan. Gaitasun normatiboa, ebazpenen bidez, programa propioak egiteko eta aurrera eramateko eraginkortasuna, bermea eta gardentasunez, zuzenbide pribatuko pertsonifikazio batean galduko litzakeena.

Ez da onargarria eskumen berri osoa bere gain hartuko duen erakundea eta gutxienez legealdi osorako indarrean izango dena urte bateko aurrekontuetako xedapen gehigarri baten bidez arautzea, eta are gutxiago zuzenbide pribatuko entitate gisa arautzea, gaitasun normatiboa galduz eta hainbat kontrol ekidinez.

Gastu eta babes sozial ez-nahikoa Gobernuak gastu sozialak gora egin duela behin eta berriro errepikatu arren, Enplegu eta Gizarte gaien departamenduak izan du igoera leuna, (%6,4koa). Baina gainontzeko atal sozialetan ez da egon igoera nabarmenik -Osasunean eta Hezkuntzan- eta etxebizitzaren atalean jaitsiera nabarmena izan da.

Bestetik logikaren barruan sartzen da gastu soziala igotzea, eta igo den apurra baino askoz gehiago igotzea. Besteak beste, aurreko legealdian onartu ziren hiru legeak horretara behartzen zutelako, zetorren gobernu zetorrela. Legeak betetzeak hori eskatzen du eta aurreikusitako dena baino gehiago eskatzen du gainera. Etxebizitza osagarria indarrean sartzeak berak derrigorrean eskatzen du gastu soziala handitzea, eta baita eskubide subjektibo berrien arautzeak ere.

Baina aurrekontu hauek motz geratu dira onartutako hori betetze bidean. Adibidez, diru sarrerak bermatzeko errenta %16,5 igo da eta partida hau handitu daitezkeela kontuan hartuta ere, igoera ez da nahikoa ezta aurreko urteko babes maila mantentzeko ere. Azkeneko urtean eskatzaileak %40 igo dira eta gobernuak egindako estimazioen arabera, laguntza horien hartzaileak 70.000ra igo daitezke. Beraz, argi dago, aurrekontua %16 igota oso urruti geratzen garela aurreko urteetan emandako babes mailatik. Eta, gainera, gure ikuspegiko, babes maila handitu egin behar da eta diru sarrerak bermatzeko errentak Lanbide Arteko Gutxieneko Soldataren pareko izan beharko luke.

Baina urrun geratu da, ez krisian gaudelako eta diru-sarrerak gutxitu direlako, baizik eta arautzen ari garen babes maila eta, oro har, ditugun erroka sozialei aurre egiteko beharrezkoa den zerga politikarik ez dugulako. EB15eko bataz besteko presio fiskala baino zazpi puntu azpitik jarraitzen dugu eta horrela ezingo diogu aurre egin gero eta behar sozial handiagoi.

Horrez gain, lana galdu eta langabezia saria amaitzen zaien pertsonen taldea da aurrekontu hauetan ahaztuena. Batetik, ez dago lana sustatzeko programa berezirik. Berrikuntza sozio-laboralerako zuzendaritza sortu den arren, ez da lana zuzenean sortzeko ekimenik aurreikusten, proiektu eta esperientzia berrientzako laguntzak edo eta enplegu-sorguneen diagnosis eta prospekzioa egiteko programetatik harago.

Eta bestetik, ez da aurreikusten lana galdu eta langabezia saria amaitu dutenentzat babes-programarik. Eta hori 127.000 langabetutik gora daukagula gure erkidegoan azaroko datuen arabera, lan berria sortzen ari ez den une batean, sektore publikotik lana sustatzeko ahalegin berezirik ez dagoenean, eta langabezia saria amaitzen zaien gero eta pertsona gehiago izango dugunean. Zentzu horretan, ezinbesteko deritzegu gobernuak ekimena hartzeari eta diagnostiko zehatz baten ondoren, aldi baterako babes programa martxan jartzeari diru sarrerak bermatzeko legearen baitan sartzen ez diren langabetuentzat.

Eta hau ez dugu guk bakarrik esaten. Legebiltzar honetako gehiengoak pertsona hauei zuzendutako babes programa bat ezartzearen alde agertu zen duela pare bat aste, gobernuko sozio preferentea ere bai. Ustez hain kontuan hartzen duzuen mahai sozial partzial horretako sindikatu nagusienak ere argi esan du egun hauetan: 48.000 langabetuk dagoeneko ez du langabezi saririk kobratzen eta beraz horiek guztiek izan beharko lukete gutxieneko sarreraren bat bermatua. Baina honen aurrean, gobernuak Gutxieneko sarrerak bermatzeko legea aipatu eta beste aldera begiratzen du.

Osakidetza, estankatua. Osasun arlora bideratzen den aurrekontua aurreko urtearen oso antzekoa da, (%2 bakarrik igotzen da). Eta oraindik ere estatuko beste erkidegoekin alderatuta, BPGren portzentajearen batez bestekotik beherago gaude, (%4,7arekin). Eta Europako herrialdeekin alderatuta, azkeneko postuetaraino jaisten gara.

Osasun sistema publiko eta kalitatezkoak apustu sendoagoa eskatzen du, bai gastua igoz eta baita kanpotik eskainitako osasun-zerbitzuei zuzendutako diru partidak gutxituz. (Aurten ere helburu horretara bideratutako kantitatea **142.439.499 eurokoa**, %5,46 gehiago, beste erakunde pribatuekin kontzertatzen diren zerbitzuei dagokiena da. Arlo horretan eztabaida faltsuak egon dira. Esan izan da neurri horiek gastuak gutxitzeko hartzen direla, baina gero egiten diren azpi-kontratazioen baldintza ekonomikoak eta lan baldintzak begiratu gabe egiten da hori. Ezin dugu ahaztu, gainera, erakunde pribatuen azken helburua errentagarritasun ekonomikoa dela eta sistema publikoarena, berriz, errentagarritasun sozialak izan behar lukeela helburu. Gainera, kontzertazioaren bidez atea zabaltzen zaio legalki zalantzarriak diren egoerei, horra hor, Legebiltzarrak sortu beharra izan duen ikerketa batzordea.)

Etxebizitza eskubidea ez da bermatzen. Bizitzen ari garen krisi garai baten, une latzak pasatzen ari direnei laguntzeko, ezinbesteko jotzen dugu, gastu soziala bideratzeko orduan ere, etxebizitza arloak bere garrantzia izatea. Baina arlo horretan ere datuek guztiz kontrakoa adierazten digute, Eusko Jaurlaritzak joan zen urtean baino %13 gutxiago aurreikusi baitu arlo horretarako.

Gainera, etxebizitza eskubide subjektibo bezala onartuko duen legea indarrean jarri beharrean, promotoreekin eta eraikuntza enpreekin itun zabala adosteko apustua egin du Gobernuak, eta legebiltzar honetan onartutakoaren aurka akordioa sinatu dute, eraikiko den babestutako etxebizitzaren %40 bakarrik izatea alokairuzkoa.

Bestalde, azpiegituren arloan Aldaketaren gobernuak deitu arren, aurreko gobernuaren politikarekin guztiz "kontinuista" eta lehendik zetorkigun mugagabeko garapen eredia mantentzen da.

Adierazgarria da garraio atalaren **gastuaren %48 Abiadura Handiko Trenaren proiekturako izatea** eta, bitartetan, aipatutakoa baino askoz erabilgarritasun sozial handiagoa duten proiektuentzako euro bat bera ere ez agertzea.

(Eta, horretaz gain, jasangarritasun ikuspuntu batetik, hots ikuspuntu ekonomikoaz gain ingurumena eta eragin soziala kontuan izanik ere, zalantzarik diren proiektuak gelditu egin behar direla uste dugu, adibidez Mutrikuko edota Pasaiaiko portuak. Baina horren aldeko apustuak bere horretan jarraitzen dute.)

Baina alor sozialean aurrera egiten ez duen aurrekontua baldin badugu, eta garapen eredian kontinuista, aldiz PP eta PSE-EEK normaltasuna deitzen duten horretan aurrera egiten duen aurrekontua da, nabarmen. Aurrera gure nortasun propioa ezabatzeko bidean, aurrera gaztelerari bultzada ematerako orduan, aurrera samina zuen aldean bakarrik ikusterakoan, aurrera rebantxismoan. Atzera euskararen bultzadan, atzera gure nortasunaren defentsan, atzera sufrimendua onartzeko bidean, atzera elkarrizketan, atzera elkarbizitza eta bakean.

Hezkuntza arloan, noranzko desegokia erakusten dute aurrekontuek. Partida horietako bat da, zalantzarik gabe, **A ereduko kontzertuetarako** zabaldu den partida berria, lau milioi eurokoa. Jaurlaritzak ez bakarrik ez du ahaleginik egiten hizkuntza eredu integratzaileak lehenesteko, baizik eta erkidego honetako hizkuntza ofizial biak ikasteko balio ez duen A eredia saritu egiten du, nahiz eta jakin, gobernuko bozeramaleak eta hezkuntza sailburuak berak hainbatetan esan izan duten moduan, ez duela elebitasuna ziurtatzeko balio. Kontzertazio-politika desegoki horren osagarri da Hezkuntza sailaren ebazpena, zeinaren arabera sexu-banaketa egiten duten ikastetxeek ere jasoko baitute diru-laguntza publikoa.

Horretaz gainera, **irakasleak elebidunak izan daitezten bilatzen duten programek ere murrizketa** jaso dute. Bitxia da, euskal gizarteak, aitek eta amek, hezkuntzan euskararen aldeko apustu garbia egiten dutenean, Jaurlaritzak horri erantzuteko baliabideak murriztea.

Maila sinbolikoan, aipagarria da hala Nafarroa Oinez nola Herri Urrats diru laguntza barik geratu izana. Euskararen Herrian euskara bultzatzeko asmoa alde batera utziz

Hizkuntza politikari dagokionez, helburuen artean hizkuntzen bizikidetasuna aipatzen da, hiztunon artekoa, joan den astean Patxi Lopez gaztelera eta euskararen arteko bizikidetzaz aritu zen ildo beretik. Distantziakidetasuna da hori, eta planteamendu desegokia maila berean ez dauden hizkuntza-errealitateez dihardugulako. Ahaztu nahi da propio maila desberdinetan dauden hizkuntzez ari garela, ondoren euskarak orain artean izan duen bultzada ez izatea justifikatzeko. Normalizaziorako urrats berririk ez daiteke espero aurrekontu hauetatik: aurreko urteetako, eta bera gutxitua: ez dago, Jaurlaritzaren aurrekontuetan, euskarak behar duen bultzadarako irizpide argirik.

(Eta halaxe ikusten da diru-partidetan. Iazkotik datozen aldaketak txarrerako baino ez direla ondoriozta daiteke. Jaitsiera handia dago oro har.) Diru-partida zehatzei begiratzen badiegu, oro har atzerakada da ikusten duguna: elkarteei egiten zaizkien diru-laguntzetan, guztietan, murrizketa dago, kasu bakarren batean izan ezik. Hizkuntza eskubideak sustatzeko egitasmoa, esate baterako, bosgarren zatira jaitsiko da.

Bestalde, gure nortasunaren defentsan atzerapauso nabarmena ere agerikoa da atzerriko delegazioen kasuan. Kanpo harremanetarako diru partidak 4 milioitan murriztu dira aurten eta horietako bi kanpo ordezkartzako bulegoetan izan dira, besteak beste, Quebec-en irekitzekoa zen delegazioa bertan behera utziz. Erabaki horretan, jakina denez, krisi ekonomikoak ez du zerikusirik izan. Argi eta garbi adierazi zuten gobernuko ordezkariak Legebiltzar honetan aurreko urteko aurrekontuetan aurreikusten zenaren “kontrakoa” egin nahi dutela. Delegazioak gune ekonomikoetan biltzeko aitzakiapean, asmo politiko argia du. Bai hemen eta bai munduan garena eta gure herriaren nortasun ikurrak ezkutatzea dute helburu aldaketa hauek.

Giza eskubideen alorrean ere atzerapena izugarria da. Azken urteotan aurreratutako guztia hankaz gora botaz. Giza eskubideen defentsaren eta biktimen ikuspegi murrizta agertzen dute aurrekontu hauek, hain justu, Legebiltzarrak joan zen legealdian areagotutako bidearen kontrako norabidea hartuz. Batetik, ezabatu egin da preso edo prebentzio-presaldian dauden pertsonak bisitatzeko joan-etorrietarako familiei zuzendutako laguntzen partida, horretarako inolako justifikaziorik eman gabe. Bestetik, biktimen elkarte jakin batzuei zuzendutako diru-laguntzak are gehiago handitzea eskatzen duzue zuen zuzenketan.

Gainera, errotik moztu da 2007ko urriaren 5ean Legebiltzar honetan egin zen biktimen gaineko osoko bilkura monografikoan hasitako ibilbidea. Orduan

onartutako ebazpenen artean zegoen “**motibazio politikoak eragindako giza eskubideen zapalketa jasan duten beste biktimei aitortza moral eta ordaintza egiteko beharrezko neurriak aztertzea**”. Joan zen urtean azterketa egiteko diru-partida jaso zen, nahiz eta gure ikuspegiako azterketa egiteaz gain, ordaintza egiteko beste partida bat jaso beharra zegoen, eta ildo horretan egin genuen gure zuzenketa. 2010erako aurkeztu den proiektuan, ordea, desagertu egin da partida hori.

Bestetik, alde batera uzten dira ere **frankismoaren biktimak**. Memoria historikorako azterlanaren partida mantentzen bada ere, desagertu egiten da frankismoan espetxeratuentzako partida nominala. Eta ez da aurreikusi ere egin bestelako partidarik Legebiltzar honek 2008ko azaroaren 28an onartu zuen “Egiaren batzordea” sortzeko. Presoen senitartekoei zuzendutako partida desagertu egin da. Aurrekontu hauek, beraz, erabat baztertzen dituzte motibazio politikoko beste biktimak baita eta frankismoaren biktimak eta presoen senitartekoak ere.

Bakea eta elkarbizitzarako planaren partida ere desagertu egin da, nahiz eta indarrean egon. Eta gauza bera gertatzen da **Konpondu** programaren atalekin, baita herrietako foroekin ere: desagertu egin dira. Eta, beraz, elkarriketaren bidezko bakea eta elkarbizitzarako apustua errotik mozteko asmo argia erakusten du beste behin ere gobernu honek.

Beraz eta laburbilduz, Legea betetzen ez duen aurrekontu lege-proiektu baten aurrean gaude; Xedapen gehigarri bidez Lanbide arautzeko asmoa mantentzen duena nahiz eta argi geratu ez dela urtarrilaren batean indarrean sartuko, gobernuaren kudeaketa ezin okerragoa berriro agerian uzten duena; krisiari erantzun sozialik ematen ez diona, langabetuak ahaztu dituen, politika fiskala aldatu nahi izan ez delako eta gastu arrunta jaisteko konpromisoa bete ez delako; garapen eredu kontinuista markatzen duena; gure herriko hizkuntza, kultura eta nortasun ikurretan atzera egiteko asmo argia duena; giza eskubideen ikuspegi murrizta agerian uzten duena, inolako disimulurik gabe; elkarbizitza lortzeko elkarriketaren aldeko ekimenak baztertzen dituen; eta elkarriketari uko egin dion gobernu batek eginak. Hitz batean, PSE-PP ezkontza frentistak herri honi gutxiengotik egiten dion eskaintza politikoaren adierazle den aurrekontua da. Normaltasuna aitzakiatzat hartuz, normaltasunaren eufemismoaren atzean epe luzerako estrategia jakin bat ezkutatu nahi duen gobernuaren aurrekontua.

Azaldutako guztiagatik, EAEko 2010eko Aurrekontu Orokorraren Lege-proiektua Eusko Jaurlaritzari bueltatzeko eskatzen dugu eta horretarako zuek guztion babesa eskatzen dugu. Abertzale eta aurrerakoiak bagara, aurrekontu hauei aurre egin behar diogu.